

**1491-1492****GRANADA KRISTAU-GUDARIZ INGURATUA<sup>1</sup>**

Ara, badatoz, badatoz, ara,  
Iliberritik saltoka  
Ariñ-igaoz, belaun-gozoroz  
Ballera baso ta arroka;  
Ipar-aldeko jende gaztea  
Alkarren-leyan ujoka:  
Jenil-ondora irristatzen da  
Eta Darro-ren ertzera,  
Nola ujolde arro-zabar bat  
Zelai-belardi gañera.

Ez du alperrik ipiñi Jaunak  
Kantauri mendi goiyetan  
Aro-oneko burni-gorriya,  
Orobat ibar-leizetan;  
Eta galtzairu piñetako  
Kristau-leyalen oletan:  
Fede-Santua biotzean, ta  
Armañ dizdiaz eskubak,  
Zer dezaketen gure zaldunak  
Ikus-bezate mairubak.

Urte geyegi negar-egin du  
Granada Uri-nobleak;  
Urte geyegi arrasta-ditu  
Mahoma-tarren kateak.  
Zerubetatik libretasuna  
Dakar Kristo-ren legeak;  
Illargi-puska-itai-okerrak  
Bota printzeka kanpora:  
Salbamendeko Gurutz-ederrak  
Distia beza goi-gora.

Gaztelu arro Alhambra-koa,  
Dardara-zaite beldurrez;  
Etzaitezela geiago estali  
Mahoma- tarren gezurrez;  
Barrubak-eder lapurtutako  
Seda, zillarrez ta urez.  
¡Ai, ai, Boabdil, errege oker,  
Erri-gaiñoen zigorra!  
Zuretzat ere noizbait ager da  
Egun-zuzen ta gogorra.

¿Ez dezu aitzen gerra-soñuba  
Zure murruen ondoan,  
Sutunpa-otsa, kia ta garra  
Landa-luze ta basoan?  
¿Zéñ ta zéñ dira agiri diran  
Gudalariak kanpoan?  
Zoaz-igasi Aprika-aldera  
Zoaz igasi aidean;  
Kistau-zaldunak milla-millaka  
Orche dituzu gañean.

Orche dituzu Ebro ta Tajo  
Ibai-ertzeko zaldiyak.  
Eun-cunka, zalapartaka:  
Beren irrintza biziak  
Bete dituzte egun ta gabaz  
Beldur-ikaraz erriyak  
¿Ikusten dezu zer leizetara  
Arrokeriak zeraman?  
Albadituzu, Alediñ era  
Oraiñ zeureak eraman.

(1) Esta hermosa oda agura en la Corona poetica que á su santo y querido Padre San Ignacio de Loyola, tejen amantes, segun costumbre anual, los hijos que moran en su Santa Casa. (N. de la R.)

Ikusi, ikusi su-ta-garrakiñ  
 Inguru danak argitzen:  
 Zelai, baratza, lorategiak  
 Legorrik dira gelditzen,  
 Achur ta aiskoraz jota-botaka  
 Suaitza echeak eroitzen;  
 Ez abererik ez egaztirik,  
 Ez da garirk sartuko:  
 Gose ta egarri tristea gaurtik  
 Lagun dituzu artuko

Aritz andi-bat ibar batean  
 Gelditu oi dan bezala  
 Ondar ujoldez inguratuba,  
 Soillik, altu ta zabala  
 Osorik-gabe, adarrak igar,  
 Tristura gorriz jantzita  
 Ala, Granada, geldiko zera  
 Kristau-taldeak ertsita,  
 Gerrari-pillak alde guzitik,  
 Ate guziak ichita.

Zu obetzena, ez ondatzera  
 Datuz kristauak onutza:  
 Agertubedi glori-errañuz  
 Berriz Jesus en Gurutza,  
 Ayenaturik zure gañetik  
 Illargi-oker amutza.  
 Zure mezkitia, zure jauregi,  
 Zure karrika, plazetan  
 Gizon-guzien Salbatzalleak  
 Agindu-beza benetan.

Zoaz igasi azkar, Boabdil,  
 Geldi-zaitezen bizirik:  
 Motrill-aldera zure zaldiak  
 Zuzen-itzazu etsirik:  
 An da Malaga-n zure galdezka  
 Aprika-tarren onziak,  
 Ureñ-gañean lutoz-janzita  
 Zalanzan dabiltz-guziak;  
 Atoz, dizute, Tanjer-alderonz,  
 Beren deadar tristea.

A. M. D. G

1884

JOSÉ IGNACIO DE ARANA

## MISCELÁNEA

Si hemos de creer á *La Voz de Galicia* nuestro insigne compatriota Gayarre se embarca para la América del Sur. Hé aquí lo que dice el citado colega de la Coruña:

«Desde ayer se encuentra entre nosotros el hombre de fama universal, el que ha merecido los más ruidosos y más merecidos aplausos de todo el mundo. El eminente tenor Julian Gayarre permanecerá entre nosotros segun se dice muy pocos dias. Ayer fué saludado por comisiones de varios centros de esta poblacion, y la autoridad municipal tambien le saludó en nombre del pueblo todo de la Coruña.»

